

# AURKEZPENA

Ba al dakizue zenbat diren autismoa pairatzen duten pertsonak mundu osoan? Zenbat direla uste duzue? Gutxi? Askok? Milioiak? Zalantza honi erantzuna emateko, hainbat erakunde diotenez, munduko %1ak du autismoa. Zenbaki honek gutxi direla dirudien arren, 70 milioi pertsona dira gure planetan hau dutenak. Gizartea aztertu ondoren, autismoa gutxietsita dagoela ohartu gara, hau da, baztertu egiten da, ez zaio behar bezalako garrantzia ematen, eta horregatik, honi buruz konzientziazeko autismoaren aldeko erakunde bat sortu dugu.

Gu Garazi, Maddi, Asier eta Maider gara, eta Urretxu-Zumarraga Ikastolako batxilergoko lehenengo mailan gaude. Gure proiektuaren idea gure gertuko lagun baten esperientzia behatzean agertu zen. Gure lagun honek zailtasunak zituen gainerako umeekin harremanak izateko, iseka egiten zioten autismoagatik sufritzen zituen sintomak direla eta. Hainbat egoera desatseginetatik pasatu ondoren, laguntza eske etorri zitzaigun bere ama, eta honi amaiara ematea erabaki genuen.

Gure ideia autismoa normalizatzea da, elkarri modu berdinean begiratzea autismoa eduki ala ez. Modu honetan, gaur egungo gazteak autismoa normalizatuko dute eta pertsona hauen lekuan jarriko dira. Hau egiteko, hainbat ideia garatu ditugu, eta zuei aurkezteko prest gaude. Hau guztia jokoan bidez egingo dugu dibertigarriagoa izan dadin eta horretaz gain, hitzaldi bat ere prestatuko dugu.

Eskerrak eman behar dizkiegu proiektu hau aurrera eramaten lagundu diguten bai erakundeei eta baita irakasleei ere.

